




ATAUNGO UDALA



A.D. 2015/387

JAKINARAZPENA

Asier Rodriguez Etxeberria Alkateak, 2015eko abenduaren 11ko datarekin, ondoko erabaki hau diktatu du:

“Ikusirik, 2015eko urriaren 27ko alkatetza dekretuak (351/2015) onartu zituela onartu zituela oinarri-arauak, udal aisialdi baliabideen koordinatzaile lan-poltsa eratzeko hautaketa prozesua arautzeko eta 2015eko azaroaren 3ko alkatetza dekretuz (356/2015) aldaketa xumea erantsi zitzaizela.

Ikusirik, eskabideak aurkezteko epea igaro ondoren, 2015eko azaroaren 17ko alkatetza dekretuak (364/2015), onartutako eta baztertutakoen zerrendak onartu zituela eta, halaber, dagokion epea igaro ondoren ez dela errekurtsorik izan.

Kontuan hartuz, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak 21.1.g artikuluan arautzen duena,

ERABAKI DUT:

Lehenik.- Prozesua kalifikatuko duen epaimahaia izendatzea.

Honako hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua:

-Antton Rivero Urbistondo, Tolosako Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.
Ordezkoa: Karnele Contreras Goikoetxea.

Epaimahaikideak:

-Jokin Izagirre Alustiza, Lazkaoko Udaleko Kirol eta Gaztedi Teknikaria.
-Koro Ruiz, Ordiziako Udaleko GIZ teknikaria.
-Alex Lasa Rekalde, Irurako Udaleko kultura dinamizatzaile teknikaria.
-Idoia Olano Goikoetxea, Irurako Udaleko Euskara Teknikaria, euskara probarako.

Idazkaria:

-Epaimahaiko idazkari-lanak Ataungo Udaleko idazkariak beteko ditu.

Bigarrenik.-- Azterketa eguna finkatzea, era honetan: Oposizioko bigarren ariketa 2015eko abenduaren 17an (osteguna), goizeko 10:00etan, Ataungo Udaleko batzar aretoan izango da; Oposizioaren hirugarren ariketa, egun berean izango da aurreko ariketaren amaitu ondoren.

Eta horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezakezu EAeko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako epaitegi egokian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen



ATAUNGO UDALA

azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109.c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, **nahi izanez gero**, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekursoaren aurretik, **berraztertze**ko errekurtoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari **hilabeteko epean**, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 116. eta 117. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtoak aurkezteari kalterik egin gabe.

Ataunen, 2015eko abenduaren 11n.

Idazkaria,

